

IVAPeko Liburutegia eta Dokumentazio-gunea.

Arautegia

Informazio orokorra

IVAPeko Liburutegia/Dokumentazio-gunea ikerketa eta kontsultarako zentro espezializatua da eta honako gai hauei buruzko informazioa kudeatzen eta zabaltzen du:

- Hirigintza eta Ingurumena

Erakundearen berezko zereginetan laguntza ematen du, aipatutako gaietan espezializatutako funtsaren bidez. Funts horren helburua da IVAPeko langileei, Eusko Jaurlaritzako langileei eta hirigintzan eta ingurumenean interesa duen edozein espezialistari laguntza dokumentala eta bibliografikoa ematea.

Bilbon du egoitza, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolan (LHIEE).

Erabiltzaileak

IVAPeko Liburutegi/Dokumentazio-guneak bi erabiltzaile mota ditu:

- IVAPeko eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileak
- Kanpoko erabiltzaileak

Bilduma

IVAPeko Liburutegi/Dokumentazio-gunearen bilduma hainbat formatutan dagoen materialez osatuta dago: monografiak, aldizkako argitalpenak eta datu-baseak.

Bildumari buruzko informazioa online katalogoan jasotzen da, IVAPeko eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) web-orrietan kontsulta daiteke.

Zerbitzuak

- **Liburutegian bertan kontsultatzea**

IVAPeko Liburutegiko/Dokumentazio-guneko material guztiak irakurgelan kontsulta daitezke. Erreferentzia-bilduma jendearentzat zuzenean dago eskuragarri; gainerako materialak langile arduradunei eskatu ondoren kontsultatzen dira.

- **Mailegua**

IVAPeko Liburutegiak/Dokumentazio-guneak mailegu-politika desberdinak ezartzen ditu, eta horiek zehazten dute zer material mailegatzan diren, zenbat ale eta zein epetan egon daitezkeen maileguan, erabiltzaileen motaren, obren ezaugarrien eta beste inguruabar berezi batzuen arabera.

Ezaugarri bereziengatik erabilera mugatua eskatzen duten materialek kontsulta-baldintza bereziak izango dituzte.

IVAPeko liburutegiak/dokumentazio-guneak liburutegien arteko mailegua ere egiten du. Mailegu horren bidez, IVAPeko langileek eta, oro har, Eusko Jaurlaritzakoek beste erakunde batzuetako liburutegietan dauden materialak eskatu ahal izango dituzte.

- **Erreserba**

Erabiltzaileek materiala erreserbatzeko aukera dute. Erreserba da katalogoko obra bat aldeztatik eskatzea, baldin eta kontsultaren unean eskuragarri ez badago mailegu-egoeran dagoelako.

- **Mailegua berritzea**

Halaber, erabiltzaileek mailegua berritu dezakete. Berritzea da maileguan dagoen dokumentuaren mailegu-epea luzatzea, baldin eta beste pertsona batek alea erreserbatu ez badu.

- **Erreprografia**

Erreprografia-zerbitzuak dokumentuak eskaneatuta edo fotokopiatuta lortzeko aukera ematen du.

- **Informazioa eta erreferentzia**

Erabiltzaileei beharrezko laguntza eskainiko zaie eta eskura dituzten baliabide eta zerbitzuen berri emango zaie.

Era berean, liburutegia espezializatuta dagoen gaiei buruzko informazio- eta dokumentazio-

eskaerei erantzungo zaie, eta eskura dauden baliabideak eskuratzea erraztuko zaie. Eskatutako baliabideak IVAPeko Liburutegian/Dokumentazio-gunean ez badaude, informazioa emango zaie, ahal den neurrian, beste liburutegi batzuetan aurkitu eta erabiltzeko.

Liburutegiko katalogoaren erabiltzeko prestakuntza ere ematen da, funtsen online bilaketa errazteko.

Kasu bereziak eta araudi honetan aurreikusten ez diren egoerak liburutegiko arduradunek ebatziko dituzte.